



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua

GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

**Herritaren eta enpresen zereginak
elkartasunezko trantsizio ekologirako**



Herritaren eta enpresen zereginak elkartasunezko trantsizio ekologirako

Maeva JANUEL eta Dante EDMEEK animaturik

AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Trantsizioak **kolektibo behar du izan**, herritarren gehien-gehiengoak behar du bere egin. Halatan, bada, galdera hau datorkigu: nola egin trantsizioa ororen kezka bilaka dadin?

Batzuk akuilatzaile dira eta bere egiten dute gainerako jendeak kezka horietarantz bideratzeko zeregina: ideia anitz dituzte, baina taldean partekatutak behar dira ideia horiek eraginkorrago izateko.

Trantsizioak eskatzen digu itsas hegiaz gain barnealdeaz ere arduraz gaitzen, barnealdearentzat ere lan egin dezagun: ezin da trantsizioa egin **lurralde guztiak barnean sartzen ez baditugu**, soilik itsas aldeari so egitera mugatuz.

Denbora luzeegia utzi dugu galtzera eta iraultza baten beharrean gara; gure buruen gaineko iraultza egin behar dugu eta, aldi berean, gure **garapen ereduaren gainekoa**. Lehia maila guztietara hedatzeari utz eta zer ororena den eta zer merkatuarena erabili behar dugu gogoan, bai eta ekoizteko eta kontsumitzeko hautuetaz ere hausnartu.

NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Trantsizioa, lehenik eta behin, **kontzientzia hartze eta heziketa** arazoa da: zaila da behartzen eta debekatzen aritzea, baina heziketak, aldiz, jokamolde berriak plantan emateko aukera ireki diezaguke. Heziketa hori ez da gazteentzat soilik, baina zailago da, halere, adinarekin irudipenak eta ohiturak aldatzea: orori behar diegu dei egin, eta bereziki haurrei.

Energia ekoizpena aldatu beharra dago: mugarik gabe etor dakigukeena ustiatu behar dugu gehien (energia garbiak), eta garapen bide hori ibiltzeko behar diren baliabide guztiak eman.

Ekoizte eta kontsumitze moldea iraunkor bilakatzeko moldean berrantolatu behar dugu, gutxiago kontsumitzeko, gutxiago ekoizteko, gutxiago kutsatzeko (oro har, arrazoizko izan). Kontsumoa kudeatzeak ekoizpena egokitu eta gutxitzeko aukera eman diezaguke.

Ekonomia zirkularra gara dezakegu: egun hondakin zaigun hori baliabide bilakatu behar dugu.

URRATZEKO BIDEAK...

- **Diagnostikoak**: norbanakoen beharrak eta erabilerak; diru publikoaren erabileraz (noren zerbitzuan da euro bakoitza? Trantsizio ekologikoa aitzinatzen laguntzen du?)
- Ekologia eta elkartasunezko trantsizioaren aldeko **formakuntza/ikerketa/bikaintasun dinamika**: ekologia irakasteko campusa, proiektuak lagundu eta balioan emateko klusterra.